

Euskal Herriko florari buruzko artikulu-bilduma hau irakurri baduzu, irakurle, bai familia hau eta bai genero hau aztertu dela berehala konturatuko zera.

J. Terés



Landare honek Euskal Herrian bi subespezie dituela ohartarazi nahi

Gainera, "San Jose lorea" izen berarekin, bere garaian Elhuyar 81. zenbakian *Primula vulgaris subsp. vulgaris* espeziea aztertu genuela gogoratzen dizugu eta oraingo honetan berriro "San Jose lorea" izenez ezagutzen den genero bereko *Primula elatior* espeziea aztergai izango dugula aurreratzen.

dizugu. Aurrenekoa, *Primula elatior subsp. elatior* banaketa-mapak adierazten duen modura banatzen da, eta bigarrena, *subsp. intricata* Pirinio inguruan bakarrik azaltzen da, Zuberoan eta Nafarroan.

Bestalde, landare hau bere generoaren barruan altuenetako bat dela esan behar dugu; 10-30 cm bitarteko altuera baitu. Erroseta-formako hostoak, hasieran horiskak, ondoren azpialdean grisaskak eta gainaldean berde iletsu samarrak izaten dira. Loreak ginbail baten buketan, horiak eta usain gabekoak, udaberri hasieran eta maitza bitartean azaltzen dira. Fruitua berriz, kapsula zilindriko txiki bat da.

Lurzoru hezeak oso gogokoak ditu, haltzadi, baso misto eta erreka-ertzak, besteak beste bereziki kolonizatzen dituelarik. Euskal Herrian, *subsp. elatior* landarea Gipuzkoa eta Bizkaian nahiko arrunta da. Bestalde *subsp. intricata* landarea Pirinio inguruko larreetan, estia subalpetar eta alpetarretan bakarrik azaltzen da, eta Europako erdi eta hegoaldeko mendilerretako espezie endemikoa dugu.

Landare hau bere edertasunagatik apaingarri gisa erabili izan da, eta sendabelartzat ere hartu izan da. Hosto berriak entsaladan jaten dira, eta buruko minen edo paralisiaren kontra erabil daitekeela diote. Loreak berriz, lasaigarriak omen dira, eta sustraiak, katarroa sendatzeko erabiltzen dira.



Udaberrian berriro... San Jose lorea

Joxepo Terés*

FITXA TEKNIKOA

San Jose lorea

Familia:	primulazeoak
Espeziea:	<i>Primula elatior</i>
Banaketa:	
Gipuzkoa eta Bizkaian	arrunta
Araba eta Nafarroan	banandua
Iparraldean	urria
Habitata:	lurzoru oso hezeak: basoak, erreketako ertzak, haltzadiak; eta zapalda laiotzak
Sendabelarra:	bai

* Naturalista

